



KOMUNITATE ETA DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILE BAT SORTZEKO ERA KREATIBOAK

Demokrazia, bere zentzu sakonean (hau da, ez bakarrik ordezkaria denean, orain gertatzen den bezala) izan dadin, honakoak behar dira:

1.-Alde batetik, “demos” (herria grekoz): pertsona kolektiboa. Pertsona kolektiboa ez da herritarren batuketa, boto batuketa, borondate unitario batekin (adostasuna) kolektiboa den sujeta bat baizik, komunitate bakoitzaren desioa dena.

Zentzu honetan, kale, auzo, herri, eskualde, kontinente edo munduko *herria*, bere ondare guztiekin maitatzen dugunok gara, espiritu kolektibo honetan eta bertan hartu behar diren erabakietan, parte-hartu nahi dugunok.

Beste guztiak herritarrak bezala biziko dira (zentzu indibidualean) eta talde osoa masa bihurtuko da, hau da, botere politiko eta ekonomikoen aldetik oso errez menperatzen dena.

Ondorioz, erreferendum edo inkesta batekin (hau gehienetan diktadura baita, oso manipulatu dagoen informazio eta planteamenduekin egin). Elkarrizketarako, adostasuna lortzeko leku hurbil bat falta zaigu. Komunitate biziak eta elkartuak ez dauden bitartean, ez dago *herririk*, ez dago benetako demokraziarik.

Eta komunitate bakoitzak aurkitzeko leku hau, aintzina naturalki gertatzen zen bezala, eta egun leku batzuetan gertatzen ari den bezala, ezinezkoa da bizilagunen artean elkarbizitza, begikotasuna eta komunitate bizia ez badago. Gainera, bizilagunarteko asanbladak egiten badira ere, hauek indar gabekoak, ahulak izango dira eta ezin izango dute iraun.

Berdina gertatzen da erasoei aurka egiteko sortzen diren plataformekin: legezkoak eta herriaren duintasunaren seinale baldin badira ere, askotan ekintza besterik ez dira bihurtzen, ekintza mediatikoak egiten dituzten talde txikiak, baina normalean, eraso egin dagoenean sortzen direnez, beranduegi izaten da geldiarazteko. Beharrezkoa da beraz, herria antolatzea erasoak ekiditeko.

Ondoren, komunitate bizi hauek sortzeko modua azaltzen saiatuko gara:

2.- Beste aldetik, krazia (indarra grekoz), gizarte arloan, komunitatea lehen esan dugun zentzan baldin badago bakarrik, kolektiboa izan daiteke. Herriaren indarra, bere elkartasunaren eta bere ekintza ez-bortitzaren ezagutza eta praktikaren elkartasunaren fruitua da. Pertsonak, behar den informazioa daukagunean eta gure artean ados jartzen garenean, sortzen dugun indarra geldiezina da, edozein multinazionalaren indarra baina handiagoa da.

Jendeak parte har dezan metodo eta teknika hoerenak zeintzuk diren ikusi baina lehen, lehendabizi komunitatea nola sortzen den ikusi behar da. Demokrazia ez dela teknikoaren gaia bakarrik ez badugu ulertzen, ez dugu aurreratuko, eta kontsulta guztiak liderren, teknikoaren edo politikoen menpe egongo dira.



Aurrean daukagun erronka ez da batere erraza: nola animatu, pedagogia egin, eskoletatik, auzoetatik, jendeak gauza publikoetan ilusioa errekuperatu dezan, bizilagunekin topatzean, beren arazoetan erabakitzeko ahalmena eduki dezan. Ez daude ide laburrak, eta askotan aktibismoa eta bide politikoa hartzeko tentazioa handia izango da, baina herria ezin da ordezkatu partidu politiko eta GKE-ekin. Beharrezkoak dira, baina ez nahikoak.

Eta hemen da beharrezkoa denon kreatibitatea: nola sortu asanblada bizi garen lekuko komunitatean? Nola lortu herriko ekimenetan jendeak parte hartzea gauza normala izatea? Leku bakoitzean desbedina izan daiteke.

Komunitatea sortzea lortzen badugu, denontzat hoberena zer de erabakitzeko elkartasuna sortzea gain, edota udaletxeek eta gobernuek gure borondatea aintzat hartzea gain, aisia, kreatibitatea, solidaritatea, laguntasuna, etab. sortuko dira.

Jende askori hiri handiko anonimotua gustatzen zaio, baina hori ez da guztiz egia: arlo publiko itogarrietatik egiten dugu ihes, arlo pribatua errespetatzen ez duten lekuetatik. Hori lortzea pedagogi gauza da, pertsonaren indepentiaren gauza. Gure bizitza pribatuaren izenean ezin diogu guztion kulturari, naturaren ondasunari, gizarte justiziar lortzeko eskubide eta beharriari uko egin. Bizi garen kalea, auzoa, hiria, herria gureak dira, eta gu gara arduradunak.

Gaur egun badago bizitza soziala, baina ez lurrari lotutakoa: lagun taldeak, ekintzaren bat egiteko taldeak, lan taldeak, etab. Baina indarra eta autodeterminazioa lurraldean daude.

Herri bakoitzean, lurralde bakoitzean, komunitatea da lehena, izaki kolektiboa delako, naturala, leku bakoitzean sortua eta bere ohiturak pixkanaka eginak dituen: lehendabizi izatea da, gero, egitea: bere ekonomia, ekologia eta osasuna zaintzen ditu. Ezin ditugu gure indarrak gastatu aberriaren ekonomiaren alde, herri identitatea, bere askatasuna eta nortasuna salbatu arte. IZAN gabe, ez dago indarririk.

NOLA HASI DEMOKRAZIOA LOKALA?

Helburua argi edukiz gero, kreatibitatea da gehien erabili behar duguna demokrazia lokala hasteko. Proiektu hau maitatzen badugu, ekimenak sortuko dira. Hala eta guztiz ere, ziur porrotak ere egongo direla (saiakera-porrota printzipioa).

Ekimen batzuk apuntatu ditzakegu:

- Herrian interesatzen den gai bat proposatu. Herri bizilagunen zuhaitz asanblada noa dabilen jakin eta gero, gai hau auzo bakoitzean jorratu daiteke (asanblada bakoitzean komenigarria da sei edo zazpi lagun baina gehiago ez egotea) akordioetara iristearren. Gai polemiko bat ere proposatu daiteke; funtzionatzen duten taldeak bateratu, eta bertako partaideei kontsulta egin gai horri buruz. Halaber, udalean interesa duten gai orokorrak edo *Herriaren* programa unitario bat proposatu. D'Òrriusko (Maresme) eta Cardedeu (Vallès Oriental) kasuak. (www.cardedeu.org/assemblea)



- Cardedeu bezalako lekuetan, auzoak aurreko puntuarekin elkartu baina lehen, udaleko asanbladak martxan jarri aurretik bizilagun talde, entitate eta sentsibilizatutako beste pertsona batzuekin, prioritateak edota gai zehatz bat oinarri hartuta.
- Lankidetzaren proposamen bat egin udaletxeari gai jakin bat elkarrekin eta denek parte hartuz jorratzeko, laguntza logistikoa eta konpromezu politikoa jasoz.
- Lleuregatik hasi: Festa Nagusia edo auzoko festa antolatzen era aktiboan parte hartu (denon artean emanaldi artistikoa egin), edo urteroko bazkari bat kalean, edo feria bat, txango bat, ekintza bat antolatu... Honek, ezagutza, laguntasuna, komunitatea sortzen du. Hemendik aurrera, mantendu egin behar da eta momentu jakin batean gai publiko bati buruz bizilagun asanbladan erabakia hartu.
- Maleta bidaiariak: Sant Esteve de Palautorderan 2 edo 3 kaleko 15 ibilbide zehazten hasi dira, herriko artistek apaindutako 15 caixa beraietatik igaro daitezkeen (maleta bidaiariak), herriko sinboloekin eta hutsa dagoen liburu batekin, bertan bizilagunek beraien proposamen eta etxeko ezinegonak apunta ditzaten. Etxe bakoitzak egun batzuetan daka eta ondoren bizilagunaren etxera eramaten du (amabirginak bidaiarienen ohitura erreperatuz) Ibilbidea amaitzean, erraza da itinerario bakoitzeko bizilagunak biltzea elkar ezagutzeko, komentatzeko eta agertutako proposamen garrantzitsuenak erabakitzeko. Horrela era natural batean sortzen dira bizilagun batean sortzen dira bizilagun asanbladak.
- Hitzaldi partehartzaileak: hitzaldi irekiak planteatu daitezke, atseginak, arinak, jolas iharduerekin, lokal edo plazetan jendea interesatzen zaion gaiekin. Sarrera txiki bat egitea komenigarria da gaiaz informatuz, eta ondoren, 6-10 pertsonako talde txikiak egin behar dira denek parte har dezaten. Bertakoei, aia ez bada guztiz teorikoa edo oso arrotza, beraien etxe edo auzoterietan komenta dezaten anima daiteke, horrela jende gehiagok ezagutu eta erabaki dezake. Asanbladako partehartzaile bakoitza, asanblada eta beren kale edo auzoaren arteko lotune izateko apuntatu beharko litzake.
- Eskolei inkestak: Sant Feliu de Llobregat edo Sitges bezalako herrietan inkesta bat zabaldu da udal eskolako ume guztien artean, etxekoekin batera bete behar dutela esplikatuz. Honela, lehen elkarrizketa eta adostasuna sortzen da etxean. Segidan auzo bakoitzean bilera bat egin da, etxe bakoitzeko bozeramaile batek erantzunak eramateko eta proposamen eta lehentasunak zehaztu ahal izateko.
- Udaletxearen ekimenarekin, bizilagun asanbladak sortuz gai bat jorratzeko, presupuesto partehartzaile bat edo agenda 21 (Sitges-en bezala: Bofill Fundazioko Finestra Oberta argitalpeneko 31 zenbakia). Instituzioaren konpromezua ez da sortzen diren asanbladak kontrolatu edo arauak ezartzea, bitzita eta berezko ekimenak sortzea baizik.
- Supramunicipal helmeko gai bat planteatu, komarka bat edo batzuetako galdera territoriala jarraituz, edo hauteskunde autonomikoei begira herriaren programa unitario bat (udazken honetan Kataluniako Parlamenturako hauteskundeekin



egin den bezala), Kataluniako Estatutu berria edo Europarekin zerikusia duen gai baten kontsulta (etorkizuneko Europar konstituzioa, lurralde katalanei egindako gizarte kontsulta bidez), etab. Fokatze honek ordea, gauza deseoki bat du, oraindik leku gehienetan ez daude oinarria finkatuta duten asanbladak. Alde ona ere badu, materia praktikoa zabalgarritik, demokrazia modelo berri ha ezautu daiteke eta etorkizuneko asanbada lokalen sorrera izan daiteke.

Hau da, hasteko erak asko eta ugariak izan daitezke, eta baita laguntza teknikak ere, baina beharrezkoa da helburua zin den argi edukitzea: leku publiko aten sorrera, komuna, betirako. Bertan iritzi desberdinei aurre egin daiteke, eta nahi bera bat sortzen du. Guztiona den leku ha, sakratua, komunitate bakoitzaren asanblada da, bozeramaile gutxirekin egina, manipulazioa eta gizartearen sistema nerbiosoa ekiditeko.

Hori bai, konfiantza, elkarbizitza, errespetua eta solidaritate gabe, hau da, komunitate bizia gabe, demokrazia partehartzailea ez da sortzen, ez du funtzionatzen.

Hasieratik, elkarrizketaren pedagogia, ardurak banatu, erlazionatzeko modu berri hau jorratu behar dira.

ZER EGIN DEZAKET NIK?

Bakoitzak eginkizun bat dugu, horregatik garrantzitsua da proiektuak ezagutzea, bakoitzak ahal duena egin dezan bere bokazio, profesio, inklinazio eta karismaren arabera: hitzaldiak antolatu, entitateekin hitz egin, udal asanbladak sortu, lagunak eta kideak demokrazia partehartzaile bat ezartzera bultzatu, instituzioetatik bultzatu, elkarrizketa eta adostasunaren alioa eskola eta etxera zabaldtu, artikuluak idatzi, kuota ekonomiko batekin proiektuak bultzatu...

Garrantzitsuagoa da urtero pertsona baten kemena mantentzea komunikabideetan agertzea edo ekimen jendetsuak egitea baino. Nahiz eta arraroa iruditu, irautzaren karkoa pertsonen arteko elkar-ulertzean dago. Horrek lagunduko du konpromezu guztietan konplizitatea mantentzen.

LAGUNTZA ERABILGARRIAK

Germanies taldeak, bai hitzaldi eta bai aholkularitza profesionala eskeintzen ditu interesa duten talde eta administrazioentzat, bakoitzaren errealitatea kontutan hartuta asanblada eta demokrazia parte hartzailearen prozesuak hasteko.

Adostasun eta elkarrizketaren aldeko asanbladen sistema antolatzailea eta funtzionamendua www.assemblea.org orrialdean aurki daiteke.